

# Energia Zerbitzuen Enpresen (ESE) kontratazioa udal esparruan

Eguna: 2012ko martxoaren 7a, asteazkena

Lekua: Bilbao Exhibition Centre (BEC). Auditorioa, 4. solairua

Prezioa: Doakoa

## Aurkezpena

Energiaren Euskal Erakundeak eratutako jardunaldi hau, nagusiki, Euskadiko udal agintari eta mankomunitateetako kudeatzaileentzat da, eta udaletan diharduten kargudun diren aldetik, Energia Zerbitzuen Enpresak (ESEak) kontratatzeke dauden aukerak sustatu eta ezagutaraztea du helburu.

## Deskribapena

Energia zerbitzuen enpresek zenbait udal instalaziori energia hornidura guztia emateko gai dira. Gainera, zenbait zerbitzu osagarri eskaintzen dituzte, hala nola instalazioen mantentzea eta energia eraginkortasun edota berriztagarrietan inbertsioak, energiaren aurrezpena bermatze aldera.

Horrelako enpresek zerbitzu batzuk integratzen dituzte; adibidez, instalazioetan energia eraginkortasuna hobetzeko jardueren planifikazioa, gauzaperen eta finantzaketa, energiaren erabilera hobetzeko eta haren kontsumoa eta kostua gutxitzeko. Horien barruan sartzen dira obra, hornigai eta inmateriala egiten diren inbertsioak; betiere, energia kostuak murrizteko eta kalitatea hobetzeko. Jarduera horiei lotutako beste lan batzuk ere eskaintzen dituzte, esaterako, energia kontsumitzen dituzten instalazio, ekipo eta sistemen eraikuntza, muntaketa, eraldaketa, mantentzea, gaurkotzea edo berritzea, ustiapena eta kudeaketa; teknologia eraginkorrek sartzearen ondoriozko jarduna, hain zuzen ere. Energia zerbitzu horiek emateko kontratu bat sinatu beharra dago, eta bertan zehaztasunez azaldu behar dira jarduera guztiak, baita energiaren aurrezpenari lotutako helburuak ere.

Eguno energia eta ekonomia egoerak eskatzen die euskal administrazioei finantzaketa bide alternatiboak edo berriak aztertzea, udal ekipamenduetan energia aurrezteko premiari aurre egiten jarraitzea ahalbidetuko dizkien finantzaketak.

Ildo horretatik, jardunaldian, Euskadiko udalei ESEak kontratatzeak ekar diezaikekeen aukera aztertzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak sustatutako eta EEEK kudeatzen duen Plan 100 ESEren bidez lor daitezkeen laguntzak ere azalduko dira. Halaber, gaur egun, gure udalak garatzen ari diren esperientzien berri zehatza emango da.

## Egitaraua

- 09:30 – 10:00 h. Jardunaldiaren aurkezpena:  
*Xabier Garmendia*, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko sailburuordea  
*Aitor Kerejeta*,  
Hondarribiko alkatea
- 10:00 – 10:20 h. Udalen energia ekintzen planak ESEn bidez  
*Natalia Díaz de Arcaya* (EEE)
- 10:20 – 11:00 h. Eusko Jaurlaritzaren Plan 100 ESE.  
*Angel Garrote* (EEE)
- 11:00 – 11:30 h. Atsedena dia – Kafea.
- 11:30 – 11:50 h. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren Kasu Praktikoa  
*Jesús María Crespo Basterra*,  
Atal Tekniko burua, Kudeaketa Ekonomikoa eta Azpiegiturak Zuzendaritza
- 11:50 – 12:10 h. Alegria-Dulantzikoko Kasu Praktikoa  
*Joseba Garitagoitia Odria*  
Alkatea
- 12:10 – 12:30 h. Txorierriko Mankomunitatearen Kasu Praktikoa  
*Alejandro Loustaunau*,  
Behargintza Txorierriko kudeatzailea
- 12:30 – 12:50 h. Biomasa bidezko udal bero-sareak. Udalentzako eta ESEentzako aukera.  
*Javier Marqués* (EEE)
- 13:00 – 13:30 h. Solasaldia